

**2002KO MARTXOAREN 21EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BILERAKO AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bata

**HILABETEA:** Martxo

**URTEA:** Bi mila eta bira

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**LEHENDAKARIA:** Jon Jauregi Bereziartua jauna

**BILDUA:** Patxi Plazaola Muguruza  
Josi Insausti Mujika  
Jon Berbel Aiestaran  
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria  
Miren Arrate Izagirre Iriondo  
Aimar Larrea Garin  
Jose Luis Elorza Mugica  
M<sup>a</sup> Carmen Gomez Mediavilla  
Pablo Parra Moreno  
Julio Herreros Serna Jorge  
Jorge Juan Outeiral Fernandez

**ETORRI GABEAK:** Ana Isabel Asla Egialde  
Jose Antonio Guirado Tristan  
Pello Garaialde Goikoetxea  
Arantza Aseginolaza Azkargorta  
Leire Lopez Zurutuza

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Gai-zerrendako puntuekin hasi baino lehen, Alkate jaunak hartu du hitza eta ondorengo esan du: “Gaur gertatutako Juan Priede Perez, Orioko zinegotziaren hilketaren aurrean, bere familia, alderdi sozialista eta gizarte osoarekin bat egitea beharrezkoa iruditzen zait. Hori dela eta, Udalbatzarra hasi aurretik, minutu bateko isilunea egitea proposatzen dut.”

Isilunea igaro ondoren, Jose Luis Elorza (PSE-EE/PSOE) jaunak, Alkateari hitza aldeztu aurretik eskatuta, ondorengo adierazi du: “En condiciones normales sabéis que nosotros estaríamos en este Pleno y como casi siempre hemos mantenido una posición constructiva con casi todos los temas, y en el Pleno de hoy también seguramente la mayoría de los temas hubieran contando con nuestro apoyo, pero dadas las circunstancias de hoy, no estamos con ánimo y por lo tanto nosotros nos vamos a ausentar. No queremos entrar en ninguna otra valoración política de ningún tipo, ya que en estos momentos el dolor humano es mucho más fuerte que cualquier otra cosa. Esa es esencialmente la razón por la cual hoy no vamos a estar en este Pleno, aunque de alguna manera apoyaremos las decisiones que aquí se adopten.”

Alkate jaunak: “Eskerrik asko Jose Luis. Ulertzen dugu zuen egoera eta bat egiten dugu zuekin”.

Une honetan, Jose Luis Elorza, Pablo Parra eta M<sup>a</sup> Carmen Gomez, alderdi sozialistako zinegotziak batzarraitik irtearaz egin dira.

## **1.- AURREKO AKTA**

2002ko urtarrilaren 31ko aktaren berri emanik, aho batez onartu da, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

## **2.- KUTXAKO KONTSEILARIA**

Alkateak proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Kutxako Kontseilaria izendatzea.**

2002ko otsailaren 20ko datarekin Kutxak idatzia bidali du, non esaten den, JOSE LUIS ARRIOLA TRUEBA jaunak Kontseilari kargua utzi beharrean dagoela, agintealdiko 4 urteak bete dituelako, horixe da eta, Estatutuaren 20.1. artikuluan xedatzen den gehieneko epea. Horren ondorioz, Udalbatzarri ondorengo ERABAKI-PROPOSAMENA egiten diot:

**Lehenik. JON JAUREGI BEREZIARTUA** jauna Kutxako Kontseilari Orokor izendatzea, interesatuak **kargua onartzen** badu, eta **Kutxaren**

**Estatutu**etako **18. artikuluan** aurreikusten diren **baldintzak** betetzen baditu eta **13. eta 19. artikuluetan** ezarritako **bateraezintasun eta mugapenik** ez baldin badu.

**Bigarren.** Hartutako akordioaren ziurtagiria KUTXAri bidaltzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek, proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte.

PPko ordezkariak esan du abstenitu egingo direla.

Batasuneko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (EAJ, EA, Batasuna)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (PP)

Beraz, Jon Jauregi Bereziartua, Kutxako Kontseilari izendatzea onartu egin da.

### **3.- IZENDEGIA**

Alkate jaunak, hirigintza-batzordeko lehendakariari (Patxi Plazaolari) hitza eman eta honek honela dio:

“Beasainmendi auzoan, Letamendi baserriaren inguruan egin den eraikin berriari, 35 zenbakia jartzea proposatzen da.

Loinatz auzoan, Arantzamendi-alde etxearen inguruan dagoen eraikinari 25 eta 26 zenbakiak jartzea proposatzen da bi familiako eraikina denez.

Zelaeta kalean, Epergain enpresa egiten ari den eraikinari 3 zenbakia ematea proposatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

**4.- UDAL-INBENTARIOA.** 2001-12-31ko datarekin egindako udal-inbentarioaren zuzenketa.

2001-12-31ko datarekin egindako udal-inbentarioaren ondorengo zuzenketaren berri eman da:

**ONDASUNEN INBENTARIO ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**BEASAINGO UDALA; 2001**

	Erre.Histo.Kos	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Erre.Meta.Amo.	Garbi Kontablea	Neto Kontablea
<b>ONDASUN HIGIEZINAK</b>	<b>3.619.480.400,00 pta</b>	<b>21.753.515,32 €</b>	<b>335.183.053,00 pta</b>	<b>2.014.490,72 €</b>	<b>3.284.297.345,00 pta</b>	<b>19.739.024,59 €</b>
ERAIKUNTZAK	1.172.470.415,00 pta	7.046.689,11 €	279.819.406,00 pta	1.681.748,50 €	892.651.008,00 pta	5.364.940,61 €
LURSAILAK	419.477.449,00 pta	2.521.110,24 €	0,00 pta	0,00 €	419.477.449,00 pta	2.521.110,24 €
JOLASTOKIAK	491.193.199,00 pta	2.952.130,58 €	0,00 pta	0,00 €	491.193.199,00 pta	2.952.130,58 €
BIDEAK	1.436.469.271,00 pta	8.633.354,19 €	0,00 pta	0,00 €	1.436.469.271,00 pta	8.633.354,19 €
LANDA -FINKAK	10.895.247,00 pta	65.481,75 €	0,00 pta	0,00 €	10.895.247,00 pta	65.481,75 €
AZPIEGITURAK	88.974.819,00 pta	534.749,43 €	55.363.647,00 pta	332.742,22 €	33.611.171,00 pta	202.007,21 €
<b>ERRENTA-ESKUBIDEAK</b>	<b>30.300.000,00 pta</b>	<b>182.106,67 €</b>	<b>0,00 pta</b>	<b>0,00 €</b>	<b>30.300.000,00 pta</b>	<b>182.106,67 €</b>
<b>BALORE HIGIKORRAK</b>	<b>117.104.838,00 pta</b>	<b>703.814,25 €</b>	<b>0,00 pta</b>	<b>0,00 €</b>	<b>117.104.838,00 pta</b>	<b>703.814,25 €</b>
<b>IBILGAILUAK</b>	<b>13.464.539,00 pta</b>	<b>80.923,51 €</b>	<b>9.545.047,00 pta</b>	<b>57.366,89 €</b>	<b>3.919.491,00 pta</b>	<b>23.556,62 €</b>
<b>ALTZARIAK</b>	<b>202.568.595,00 pta</b>	<b>1.217.461,78 €</b>	<b>110.564.152,00 pta</b>	<b>664.503,94 €</b>	<b>92.004.442,00 pta</b>	<b>552.957,83 €</b>
<b>ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHURG.</b>	<b>58.727.315,00 pta</b>	<b>352.958,27 €</b>	<b>0,00 pta</b>	<b>0,00 €</b>	<b>58.727.315,00 pta</b>	<b>352.958,27 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.041.645.687,00 pta</b>	<b>24.290.779,80 €</b>	<b>455.292.252,00 pta</b>	<b>2.736.361,54 €</b>	<b>3.586.353.431,00 pta</b>	<b>21.554.418,23 €</b>
ERAIKINAK ERABIL.-LAGAPENEAN	46.502.022,00 pta	279.482,78 €	0,00 pta	0,00 €	46.502.022,00 pta	279.482,78 €
	<b>4.088.147.709,00 pta</b>	<b>24.570.262,58 €</b>	<b>455.292.252,00 pta</b>	<b>2.736.361,54 €</b>	<b>3.632.855.453,00 pta</b>	<b>21.833.901,01 €</b>

**ONDASUNEN INBENTARIO ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**ANTZIZAR KIROLDEGIA; 2001**

	Erre.Histo.Kos	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Erre.Meta.Amo.	Garbi Kontablea	Neto Kontablea
ONDASUN HIGIEZINAK	219.714.625 Pts	1.320.511,49 €	130.287.093 Pts	783.041,20 €	89.427.531 Pts	537.470,29 €
ALTZARIAK	90.729.830 Pts	545.297,26 €	44.340.086 Pts	266.489,28 €	46.389.743 Pts	278.807,97 €
GUZTIRA	310.444.455 Pts	1.865.808,75 €	174.627.179 Pts	1.049.530,48 €	135.817.274 Pts	816.278,26 €

**ONDASUNEN INBENTARIO ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**MUSIKA ESKOLA; 2001**

	Erre.Histo.Kos	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Erre.Meta.Amo.	Garbi Kontablea	Neto Kontablea
ALTZARIAK	13.856.846 Pts	83.281,32 €	6.960.705 Pts	41.834,68 €	6.896.140 Pts	41.446,64 €
GUZTIRA	13.856.846 Pts	83.281,32 €	6.960.705 Pts	41.834,68 €	6.896.140 Pts	41.446,64 €

**ONDASUNEN INBENTARIO ETA ERREGISTROAREN ZERRENDA**  
**UDAL-EUSKALTEGIA; 2001**

	Erre.Histo.Kos	Erre.Histo.Kos	Erre.Meta.Amo.	Erre.Meta.Amo.	Garbi Kontablea	Neto Kontablea
ALTZARIAK	7.390.387 Pts	44.417,12 €	2.320.004 Pts	13.943,50 €	5.070.382 Pts	30.473,61 €
GUZTIRA	7.390.387 Pts	44.417,12 €	2.320.004 Pts	13.943,50 €	5.070.382 Pts	30.473,61 €

**5.- DIRULAGUNTZAK.** Garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak.

Alkate jaunak: "Iaz aurrekontuetan, udalaren sarreren %1 laguntza-mota horietarako erabiltzea onartu genuen. Iaz 15.800.000 pezeta izan ziren eta diru hori lau kontzeptuetan banatzea adostu zen, hau da: garapen beharrenda dauden lurraldeei laguntzak emateko, gobernuz kanpoko erakundeen bitartez herri horietara bolondres moduan joateko Beasaingo gazteei aukera emateko, sentsibilizazio-kanpainak egiteko eta ezbehar handiak gertatzen diren herrietan laguntzeko.

Aurrekontua oraindik ez dago onartuta eta onartuko ez balitz, aurreko urteko luzapeneko aurrekontuarekin funtzionatzen denez, aurreko urteko kopuru berdina izango genuke.

Beraz, gizarte-ongizate batzordeak, garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak onartzea proposatzen du. Laguntzak sei pertsonentzako izango dira. Iaz, hiru pertsona aurkeztu ziren, baina azkenean bi bakarrik joan ziren, hirugarrenak atzera egin zuelako. Hori gerta ez dadin gizarte-ongizate batzordeak sentsibilizazio-kanpainak egin behar ditu, gazteak egitarau horietan parte hartzeko animatu daitezten."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez, ondorengo erabakia hartu da:

**Lehenik.** 2002. urtean garatze bidean ari diren herrietan lankidetzan arituko diren gazteentzat laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarren.** Aipatutako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**6.- GKE.** Garatze bidean ari diren herriekiko lankidetzaprogramen finantzaketa oinarriak.

Gizarte-ongizate batzordeko proposamena eman da ezagutzera ondorengo adieraziz, alegia, aurreko puntuan aipatutako %1 horretatik, laguntza hauek emateko %70 erabiliko dela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. 2002ko urtean garatze bidean ari diren herriekiko lankidetzaprogramen finantzaketa-oinarriak onartzea.

**Bigarren**. Aipatutako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

### **7.- AGIRIA**. Zaharren aldeko agiria.

Alkate jaunak: “Foru Aldundiak Gizartekintzaren bidez sortu zuen orain dela bi urte, Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseilua. Hori bera guk ere Goiekin martxan jarrita daukagu, Goierri osorako. Hemen aurkezten dena Kontseilu horretatik sortu den ekimena da. Helburua zera da, adineko pertsonen gizartearen kontzientzia pixkanaka-pixkanaka aldatzen joatea. Egia da gizartearen adinekoen belaunaldia geroz eta handiagoa dela eta badaudela ezarritako ideia batzuk, non gure eguneroko lanean eta diskurtsoetan 65 urte bete dituen pertsona, pertsona pasiboa eta balio gutxikoa izango balitz bezala ikusten duten. Gizartekintzak kanpaina bat martxan jarri du eta eskuetan duzuen Agiri hori onartzea eskatzen digu. Agiri horren oinarriak bereziki hiru dira: diskriminazio negatiboa ezeztatzea, hirugarren adineko pertsonak hiritar moduan onartzea eta belaunaldien arteko harremanak finkatzea. Horien arabera, eskubide batzuk aldarrikatzen dira, hain zuzen ere, bost: duintasuna, askatasuna, parte-hartzea, pertsona bezala garatzeko eskubidea eta jakintza eta beren eskubideen defentsa. Horren inguruan gomendio batzuk egiten dira. Guk egingo duguna zera da, agiri horrekin bat egin eta Gizartekintzak sinadura-jasotzea egingo du. Agiri horrekin egin nahi dena zera da, beasaindarrak agiri hori sinatzea eta barneratzea bultzatu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “En cuanto a este manifiesto decir que todo lo que se haga por las personas mayores es poco, se merecen mucho más. Tenemos que tener en cuenta que tarde o temprano los aquí presentes estaremos en su lugar y que haremos lo mismo como mínimo. Por lo tanto tienen todo nuestro afecto, reconocimiento y apoyo a todas sus iniciativas siempre y cuando estén dentro de la legalidad.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Guk ez dugu ezagutzen kanpaina baten barruan dagoen ala ez eta horregatik ez gara sartuko balorazioetan, baina agiri honen alde gaude.”

Alkate jaunak: “Agiri honek atzean duen mezua Goiekin Goierriko adineko pertsonen kontseilua martxan jartzeko garaian aztertu zen eta Goierriko alderdi guztiok bat egin dugu.”

Bozketa eginda aho batez onartu da, zaharren aldeko agiria.

## **8.- ALKATETZAKO EBAZPENA**

Alkateak ondorengo ebazpenaren berri eman du:

“Gaia: ekintza judizialen jarduera.

Estatuko abokatuak, 98 355/02-1 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du, Beasaingo Udalaren erabakiaren aurka, hau da, espetxeetan preso dauden pertsonen familientzako banakako garraio-laguntzen arautegiaren aurka.

Alkatetza honek egun indarren dagoen legeriak ematen dizkion eskuduntzak erabiliz eta ekintza judizial eta administratiboaren jarduerari buruz, Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1k) artikulua arabera, ondorengoa

### **EBATZI DU :**

**Lehenik.** Estatuko abokatuak aurkeztutako 98 355/02-1 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko prozeduran, Beasaingo Udala agertzea, Angel Oyarzun Narvaez abokatuaren eta ondorengo prokuradorearen zuzendaritzapean:

Bilbaokoa: Arantzane Gorriñobeaskoa Etxeberria, Eneo Plazan, 6-1. oinean helbideratua.

**Bigarren.** Aipatutako abokatu eta prokuradorearen alde ahalmen orokorra ematea.

**Hirugarren.** Ebazpen honen berri Udalbatza Osoari ematea, egiten duen lehenengo bileran.”

**9.- MOZIOA.** Batasunak aurkeztutako mozioa, Euskal Pilotako Iruñeko Txapelketa dela eta.

Alkate jaunak Andoni Antxiari hitza eman eta honek mozioaren berri eman du:

“2002ko abuztuaren 21 etik 31 bitartean Euskal Pilotaren Munduko Txapelketa jokatu da Iruñean. Baldintza normalizatuetan Euskal Herriko herritar guztiontzat oso pozgarria litzatekeen albiste honek egun ez gaitu pozten. Albiste pozgarria litzatekeela diogu, euskal pilota Euskal Herriak nazioarteko ondare unibertsalari eman dion kultur altxorra izanik, Munduko Txapelketa Euskal Herrian ospatzeak guk asmatutako kirola Euskal Herriatik bertatik mundura zabaltzeko beste aukera bat gehiago eskainiko ligukeelako. Baina albiste horrek egun ez gaituela pozten diogu, antolaketa ez dutelako euskal federazioek egin, espainiarrak baizik, euskal pilotari eta zaletuen eskubideak larriki urratuz.

Euskal Herriak ez du txapelketan bere selekzio nazionalarekin parte hartzerik izanen. Euskal pilotariak ez dute euskal selekzioarekin jokatzeko aukerarik izanen, espainiarra eta frantziarra inposatzen baitzaie, bizi diren herrialdearen arabera. Euskal zaletuek ez dute euskal selekzioaren alde txalo egiteko aukerarik izanen.

Euskal pilota Euskal Herriak sortutako kirola izanik eta Munduko Txapelketa Euskal Herrian bertan jokatu delarik, iraingarritzat hartzen dugu euskal selekzioari txapelketan jokatzeko ate guztiak ixtea.

Hori dela medio, Udal honek akordio hau hartzen du:

1. HERRI GISA, ETA AREAGO JOKO HONEN SORTZAILEA DENEZ, MUNDUKO TXAPELKETA HONETAN EUSKAL HERRIARI BERE SELEKZIO NAZIONALAREKIN PARTE HARTZEKO ESKUBIDE OSOA DAGOKIOLA ALDARRIKATZEA.
2. BIDE BERETIK, EUSKAL HERRIARI NAZIOARTEKO FEDERAZIOKO KIDE IZATEKO ESKUBIDE OSOA DAGOKIOLA, BESTE KIDEEK DITUZTEN ESKUBIDE BERAK IZANIK.
3. PILOTARIEI NAHI DUTEN SELEKZIOAREKIN JOKATU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA DAGOKIELA, EUSKAL HERRIKOEK EUSKAL SELEKZIOAREKIN ARITZEKO AUKERA BERMATUA IZAN BEHARKO LUKETELARIK.
4. UDAL AKORDIO HAU EUSKAL HERRIKO NAHIZ NAZIOARTEKOKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIO GUZTIEI IGORRIKO DIEGU.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “El partido popular rechaza de manera categórica la moción presentada por el grupo Batasuna por las siguientes razones:

**Primero.** No aceptamos que en el término de Euskal Herria se quiera integrar a la Comunidad Foral Navarra y al denominado País Vasco Francés.

**Segundo.** La normativa vigente en España en materia deportiva recoge que la representación internacional del deporte español y su conjunto corresponde al Estado a través de las federaciones deportivas españolas que son las que están integradas en las federaciones internacionales, de forma que serán siempre las selecciones nacionales las que representen al deporte nacional y las selecciones autonómicas al deporte regional.

**Tercero.** Este criterio es el seguido de manera uniforme y constante por el Tribunal Constitucional para el que no es admisible que las selecciones autonómicas participen en competiciones internacionales, en las que intervengan la selección española, pues la participación de ésta última implica ya la intervención de selecciones nacionales.

**Cuarto.** Conforme a los criterios que rigen la carta olímpica y los estatutos del comité olímpico internacional, cada país sólo pueden ser representado en dicho comité por comités y federaciones de estados soberanos. Así resulta de los estatutos de las federaciones internacionales acogidas a la carta olímpica que preveen la integración de una única federación nacional o lo que es lo mismo una sólo asociación en cada país. En este sentido es concluyente el art. 4 de los estatutos de la federación internacional de la pelota vasca.”

Patxi Plazaola (EAJ) jaunak ondorengo mozio alternatiboa aurkeztu du:

### **“Euskadiko Selekzioaren partaidetza Munduko Pilota Txapelketan**

#### **Justifikazioa**

Euskal hiritarrok funtsezko papera jokatu dute Pilotaren jatorrian eta hedapenean, guzti hau nabaria geratzen delarik bai nazioarteko esparruan euskal pilotarien maila ikusirik eta baita gure erkidegoan Pilotak duen garrantzi sozial eta ekonomikoan ere. Ikuspegi honetatik Euskadiko Pilota Selekzioa Nazioarteko Pilota Federakundean sartzea, eta Euskal Selekzioaren Munduko Pilota Txapelketetan partehartzea, kirol honen instituzionalizaziorako ekarri handia da.

14/1998 Legeak, ekainaren 11koa, Euskadiko Kirolarena, euskal federazioei bere selekzioen nazioarteko kirol partaidetza aktibitate eta lehiaketetan partehartzea sustatzea eta bideratzea esleitzen die. Halaber, Nazioarteko Pilota Federakundearen indarrean dauden estatutuek Euskadi bezalako federazioen sartzea onartzen dute. Hau guztia aintzakotzat hartuz mozio hau aurkezten dugun alderdiok Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozio hau aurkezten dugu.

### **Mozioa**

Beasaingo Udalak erabakitzen du

1. Udal honen jarrera politikoa, zalantzarik gabe, Euskadiko Pilota Federakundea Nazioarteko Pilota Federakundeak integratzea dela adieraztea, beste kideek dituzten eskubide eta eginbehar berdinekin.
2. Pilota kirola edozein modalitatean praktikatzen dutenek nahi duten selekzioan parte hartzeko eskubidea daukatela aldarrikatzea, horregatik, Euskal hiritarren eskubideak bermatuak eta aitortuak izan behar dira nazioarte- mailan Euskal selekzioarekin parte hartu ahal izateko.
3. Nazioarteko Pilota Federakundeari, Euskadiko Pilota Federakundeari eta Eusko Jaurlaritzari premiamenduz eskatzea, behar diren pauso guztiak berehala eman ditzaten Euskadiko Pilota Federakundea Nazioarteko federakundean integratzeko eta Euskadiko selekzioaren partehartzea munduko txapelketetan lortu ahal izateko, aurten Iruñean ospatzen denarekin hasita.
4. Mozio hau Nazioarteko Pilota Federakundera, Euskadiko Pilota Federakundera eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Votaremos en contra”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Nik ikusten dudana diferentzia bakarra da, guk Euskal Herria jartzen dugun tokian, zuek Euskadi jartzen duzuela. Bestela berdina da.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ): “Legea ere aipatzen dugu.”

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Zuek aurkeztutako mozioaren aurrean abstenitu egingo gara, funtsean gauza antzekoa dela pentsatzen dugulako,

baina behin eta berriz ere, gurea ez onartzeagatik, beste bat aurkeztu duzue, gurekin bat ez egiteko. Gurearekin jarraitzen dugu.”

Mozio alternatiboa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, EA)

Aurkako botoak: 2 (PP)

Abstentzioak: 3 (Batasuna)

Mozio alternatiboa onartu denez, Batasunak aurkeztutako mozioa ez da bozkatu.

Jarraian Alkate jaunak esan du, eskaera eta galderetara pasatu aurretik, premiazko puntua sartzea bozkatuko dela, hain zuzen ere, Juan Priede Perez jaunaren hilketa dela eta aurkeztutako mozioa.

Bozketa egin da premiazko puntua sartzea onartzen den ala ez jakiteko eta aho batez onartu da aipatutako mozioa gai-zerrendan sartzea.

### PREMIAZKO PUNTUA

Patxi Plazaola (EAJ) jaunak, EAJ, EA PP eta PSE-PSOE alderdiek sinatutako mozioa irakurri du:

“Alderdi Sozialistako Zinegotzia zen Juan Priede Perez-en hilketaren aurrean, mozio honen bidez zera helarazi nahi diegu herritarrei:

1.- Gaitzespenik gogorrena, herritar euskaldun baten aurkako ekintza kriminal honengatik, Orioko herritarren ordezkari-izaera izanik, udal horretako herritarrak dedikazioz zerbitzatu dituelako.

Gure lagunaren kontra atentatu dutenek, euskal gizartearen kontra ere eraso egin dute.

2.- Doluminak eta elkartasuna agertu bere familiari, partaide izan den Alderdi Sozialistari, baita korporazioko kide izan den Orioko Udalari.

3.- Udaletxeko balkoian ikurrina erdiraino jaitsita eta oihal beltzarekin jarriko da, dolu-adierazpen gisa.

4.- Bihar ostirala, martxoak 22, eguerdiko 12etan Udaletxearen aurrean egingo den 15 minutuko kontzentziora etortzeko deitzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Estamos de acuerdo”.

Andoni Antxia jaunak (Batasuna): “Familiari gure doluminak azaldu eta esan, gauza hauek ez gertatzeko derrigorrezkoa dela konponbide politikoa bilatzea eta irtenbidea hortik doala sinestea.”

Besterik gabe, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, EA, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (Batasuna)

### **10.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da batik ere aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, batzarraldia, gaueko zortziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta ziurtatu dut.